

KARPETA PERTSONALA

HELBURUAK

- Nork bere burua ezagutzeko informazioa izan
- Guztien intimitatea errespetatu

JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Nork bere burua ezagutzeko baliagarria izan daitekeen informazioa sartzeko da egingo duten karpeta.

Tutoretzan egiten ditugun gauzak gordeko dituzte. Toki pertsonala da.

Jabeak bakarrik hartu eta ikus dezake .Inoiz beste inork bere baimenik gabe.

Beraiek egin behar dute, hau da eskolak ez die erosiko edo emango.Horretarako kolore ezberdineko kartulinak izango ditugun gelan.

Apaindu egingo dute karpeta argazkiak, pegatak, marrazkiak....erabiliz.

Agerian beraientzako gustukoena izena jarri beharko dute.

Karpeta gero norberak gorde dezake edo gelan izan dezakegu karpetak gordetzeko leku aukeratua.Dena dela, tutoretza orduan beti gelan izan beharko dute.

Ebaluazio bakoitzean ikasleek karpeta honetan duten informazioaz baliatuko dira txostena egiteko . Informazioa ikasturtean zehar landutako jarrerak eta berari dagokion guztiari buruzkoa izango da. Iturri ezberdinetatik jasotako informazioa hemen gordeko dute : irakasleok emandakoa, ikaskideek behatutakoa eta norberak jasotakoa.

IRAKASLEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Nork bere buruaren behaketa egiteko erabiltzen da baliabide hau.

Karpeta hau erabat pertsonala da , hau da, gordeta dagoen informazioa ikasle berak soilik ikus dezake.Hau da ezin du beste inork bere baimenik gabe karpetan dagoena ikusi.Oso garrantzitsua da hau behin eta berriro gogoratzea.

Tutoretza saioetan nork bere burua ezagutzeko baliagarria den guztia sartuko dute karpeta honetan.

Ohitura hartu arte komenigarria da irakasleak gogoratzea zein informazio sartu dezakete karpetan.

Azalduko zaie zertarako erabiliko dugun eta zein garrantzitsua den norberak nahi duen moduan egitea eta apaintzea.Erabat pertsonala denez, guztiak ezberdinak izatea izango da naturalena .

Lan hau egiteko erabiliko dugun antolamendua bakarka izango da.